

## GIL 115 Labetxuko higadura- formak (Jaizkibel)



Jaizkibel formazioaren itxura. Turbidita-sekuentzia batez osaturik dago; zenbat eta gorago, orduan eta lodiagoak eta pikor larriagoak dira turbiditak.

### Kokapena

- **Koordenatu geografikoak:**

Lat.: 43° 21' 50,62" N

Long.: 1° 52' 16,16" W

- **UTM koordenatuak:**

X: 591.106,62 m

Y: 4.801.923,43 m



### Nola iritsi

Hondarribian, Guadalupeko Amaren ermita parean, GI-3440 errepidea hartu behar da, Donostiarantz, eta Jaizkibelgo Erentzineko kuartel zaharrera doan bidearekiko bidegurutzeraino jarraitu. Bide horretan, kostaraino jarraitu behar da.



"Maskorra", babespeko higaduraren adibide bikaina. Barrualdean, hareharria desegin egiten da; kanpoaldean, berriz, sendoagoa da, patina zarakartuak sortzen baitira. Egitura horietan ondo ikusten da turbiditen barne-egitura; zenbait mota eta koloretako xaflak ageri dira.

## GILaren deskribapena

Jaizkibel formazioko parte dira Labetxuko hareharriak. Hauek dira formazio horren osagaiak: Eozenoko flyshean eratutako hareharrien eta lutiten alternantzia, higadurak eragindako sistema turbidikoen metakina eta plataforma baten birsedimentazioa. Hareharriak kuartzodunak dira (% 90), eta zementu karbonatua dute; kolore askokoak dira: grisaxkak, horixkak eta gorrixkak (burdin oxidoen eraginez). Korrante-egitura asko gordetzen dituzte. Iparralderanzko okerdura duen egitura monoklinal batean daude.

Labetxuko hareharrien meteorizazioak sortzen duen modelaketa ezaugarri hauen ondorio da: arroka beraren testura intrintsekoak (zementazioa, barne-xafladurak, etenguneak, burdin oxidoen presentzia eta abar) eta egituren antolaerak, hala nola estratifikazio-planoak edo hausturak eta diaklasak izatea.

Kostaldean azaleratzen diren arroka pikortsuetan, hala nola hareharrietan, ohikoa da kanpoko gainazalaren gatz-meteorizazioa gertatzea eta forma biribilduak sortzea, albo-gisa (zentimetrokoak) edo tafoni gisa (tamaina dezimetroetik hasi eta metrokoetara inokoak). Gainazal horizontaletan garatzen direnean, sakonune itxiak sortzen dira, meteorizazio-askak, *gnamma* izenekoak; alboak elkartzen direnean, abaraska-itxurako egiturak sortzen dira. Ez dago argi haren jatorria; higadura eolikoa, ezkatatzea, krioklastia eta gatz-meteorizazioa aipatu izan dira. Ohikoak dira kostaldean. Forma-, tamaina- eta kolore-aniztasuna izugarria da, eta mundu mailako adibiderik onenetako bat osatzen dute. Jaizkibel-Ulia formazio osoan ikusten dira higadura-forma horiek, baina Labetxun dago geofoma berezien kontzentrazio handiena.



Labetxu are ederrago egiten du megastratu gorrixka bat egoteak.

Meteorizazioak lanean jarraitzen du gaur egun, hezetasun-aldaketen, zementu karbonatatuaren disoluzioaren, itsas gatzaren ekintzaren eta haizeak eragiten duen higaduraren ondorioz, eta modelaketa-forma bereziak sortzen dira ipuinetakoa dirudien paisaia honetan.

## Behatzeko punturik onena


*In situ*. Kostako bideari jarraituz.

## Erlazionatutako GILak

- **Geografikoki:** GIL 50, GIL 77, GIL 99, GIL 136.
- **Gaiari dagokionez:** GIL 108, GIL 49, GIL 50.



Albeoloak elkartzean, abaraska-itxurako egitura oso ikusgarriak eratzen dira.



Barne-xaflek, kolore-aldaketek eta higadura-formek mosaiko benetan artistikoak osatzen dituzte.

## GIL-aren balorazioa

Valoración		Bajo	Medio	Alto	Muy alto
<b>Interes zientifikoa</b>	Geomorfologikoa				●
	Hidrogeologikoa				
	Tektoniko/Estrukturala				
	Estratigrafikoa				
	Paleontologikoa				
	Petrologikoa				
	Mineral-hobiak				
	Beste batzuk				
<b>Interes ekonomikoa (erauzketa)</b>			Iraganean	Potentziala	Martxan
<b>Interes kulturala:</b>					
<b>Oharrak:</b>	Estetikari dagokionez, EAEko GILik garrantzitsu eta harrigarrirenetako bat da, baina ezezaguna da oso, baita komunitate geologikoan ere.				

## Bibliografia espezifikoa

- <http://www.eve.es/publicaciones/cartografia/Mapas/40-IV.pdf>
- Edeso, J.M. (1988): "Microformas en las areniscas eocenas de la Formación Jaizkibel". Lurralde, 11, 57 – 84.
- Galán Nieto, C., Nieto, M., Rivas, J. M.: *Pseudokarst en arenisca Flysch Eoceno de Gipuzkoa. Formación Jaizkibel*. <http://www.aranzadi-zientziak.org/fileadmin/docs/espeleologia/Galan-Nieto.PseudokarstArenisca.pdf>
- Gutierrez Elorza, M. (2008): *Geomorfología*. Arg.: Miguel Martín Romo. 898 or.